COMMUNAUTÉ D'AGGLOMÉRATION – HIRIGUNE ELKARGOA – COMUNAUTAT D'AGLOMERACION

# EUSKALDUNDU

Règlement du dispositif de bourses 2024-2027
Beka dispositiboaren araudia 2024-2027



## Contexte

Avec *Euskaldundu*, la Communauté d'Agglomération Pays Basque souhaite développer le nombre de locuteurs en langue basque parmi les étudiants, les jeunes parents et la population active de son territoire.

Ce dispositif de bourse permet d'attribuer une aide financière aux adultes entre 18 et 64 ans, résidant sur le territoire communautaire et souhaitant se former de manière intensive à la langue basque, dans le cadre d'un projet professionnel, associatif ou personnel.

Il a pour cibles :

- les jeunes et les étudiants qui pourront construire l'avenir du territoire en euskara ;
- les parents qui souhaiteraient transmettre la langue et accompagner leurs enfants dans leur scolarité bilingue ou immersive ;
- les adultes en situation d'activité qui pourront faire vivre l'euskara dans leur secteur professionnel ;
- les apprenants en cours du soir, qui souhaiteraient accélérer le processus d'apprentissage en y associant un module intensif ;
- les 24 000 bascophones réceptifs qui comprennent l'euskara sans pouvoir le parler.

Ce dispositif s'appuie sur un fonds de 280 000 €. Complémentaire du dispositif de bourses *Euskaraz lan egin* proposé par l'OPLB, il permettra d'attribuer entre 50 et 200 bourses (en fonction de la durée de la formation de chaque apprenant), sur la période du 15 décembre 2024 au 31 décembre 2027.

## Testuingurua

Euskaldundu dispositiboarekin, Euskal Hirigune Elkargoak bere lurraldeko estudianteen, guraso gazteen eta populazio aktiboaren artean euskal hiztun kopurua emendatu nahi du.

Beka dispositibo honek Euskal Elkargoaren lurraldean bizi diren 18 eta 64 urte arteko helduei dirulaguntza bat ematea ahalbidetuko du, euskara formakuntza intentsibo batean sartzeko, proiektu profesional, pertsonal edo elkarte proiektu baten baitan.

Xede-publikoak hauek dira:

- lurraldearen etorkizuna euskaraz eraikitzen ahalko duten gazte eta estudianteak;
- haurrei euskara transmititu nahi dieten eta sail elebidunean edo murgiltzean haurren ikas-prozesua lagundu nahi duten gurasoak;
- lanean ari diren helduak, euskara lan munduan biziarazten ahalko dutenak;
- gau eskoletako ikasleak, ikas-prozesua zalutu nahi dutenak, modulu intentsibo bat gehituz;
- euskara ulertzen duten baina euskaraz mintzatzen ez diren 24.000 hiztun hartzaileak.

Dispositibo honek 280.000 €-ko aitzinkontua du. EEPk proposatzen duen *Euskaraz lan egin* beka dispositiboaren osagarri da eta 50 eta 200 beka artean banatzen ahalko ditu (ikasle bakoitzaren formakuntzaren arabera) 2024ko abenduaren 15etik 2027ko abenduaren 31rako epean.

## Article 1. Objet

Le dispositif « *Euskaldundu* » est une aide financière individuelle destinée aux personnes souhaitant se former de manière intensive à la langue basque. La bourse prend en charge les coûts pédagogiques des formations intensives.

## Article 2. Bénéficiaires

Sont éligibles au dispositif de bourse les personnes entre 18 et 64 ans, résidant sur le territoire communautaire et présentant un projet professionnel, associatif ou personnel nécessitant un usage quotidien de la langue basque. Les bénéficiaires d'une pension civile ou militaire ne sont pas éligibles.

Pour pouvoir bénéficier de la bourse, le demandeur doit avoir préalablement mobilisé tous les dispositifs de financement de droit commun (CPF, congés de formation professionnels, congés de transition…) ainsi que les dispositifs de financement spécifiquement destinés à l'apprentissage de la langue basque proposés par l'OPLB, la Région Nouvelle-Aquitaine et France travail.

Le dispositif *Euskaldundu* pourra intervenir seul ou en complément de ces aides, sur les coûts pédagogiques non couverts.

Un bénéficiaire a la possibilité de solliciter la bourse *Euskaldundu* à plusieurs reprises, pour accéder à un niveau de compétence supérieur.

## Article 3. Formations éligibles

Les formations intensives en langue basque éligibles devront respecter l'ensemble des critères suivants :

- objectif : acquisition en langue basque du niveau B1, B2 ou C1 du Cadre Européen Commun de Référence pour les Langues (CECRL). Le niveau à atteindre pourra, si nécessaire et justifié, être adapté en fonction des spécificités du secteur d'activité du bénéficiaire,
- intensité : 30 heures hebdomadaires minimum,
- durée : de 120 heures minimum à 1500 heures maximum, en fonction du niveau initial

## 1. artikulua. Gaia

«Euskaldundu» dispositiboa bakarkako dirulaguntza bat da, euskara molde intentsiboan ikasi nahi duten pertsonei zuzendua. Beka horrekin formakuntza intentsiboen kostu pedagogikoa ordaindu daiteke.

## 2. artikulua. Onuradunak

Beka dispositiboan hautagaitza aurkez dezakete Euskal Elkargoaren lurraldean bizi diren, 18 eta 64 urte arteko eta euskara egunerokoan erabiltzeko proiektu bat (profesionala, pertsonala edo elkarte bati lotua) aurkezten duten helduek. Pentsio zibil edo militar bat errezibitzen duten pertsonak ezin dira aurkeztu.
Beka eskuratzeko, galdegileak aitzinetik eskatuak izan behar ditu zuzenbide komuneko finantzamendu dispositibo guziak (CPF, formakuntza profesionalerako oporrak, trantsizio oporrak), eta baita EEPk, Akitania Berria Eskualdeak eta France Travail erakundeak proposatzen dituen euskara ikasteko dirulaguntza dispositiboak ere.

Euskaldundu dispositiboa bakarrik edo beste laguntza batzuekiko molde osagarrian banatzen ahalko da, estaltzen ez dituzten kostu pedagogikoak ordaintzeko.

Galdegileek Euskaldundu beka behin baino gehiagotan eska dezakete, maila goragoko ikas-prozesuetan sartzeko.

## 3. artikulua. Hauta daitezkeen formakuntzak

Hauta daitezkeen euskarazko formakuntza intentsiboek ondoko irizpide guziak errespetatu beharko dituzte:

- helburua: euskaraz Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B1, B2 edo C1 maila eskuratzea. Beharrezkoa eta justifikatua baldin bada, lortu beharreko maila egokitzen ahalko da ikaslearen aktibitate-sektorearen berezitasunen arabera
- intentsitatea: astean 30 oren gutienez,
- iraupena: gutienez 120 oren eta gehienez 1500 oren, hautagaien hastapeneko mailaren arabera,
- epea: 2024ko abenduaren 15etik 2027ko abenduaren 31rako epean diren formakuntzak,
- tokia: Ipar Euskal Herrian, Euskal Autonomia

des candidats,
- période : formations comprises entre le 15 décembre 2024 et le 31 décembre 2027,
- lieu : territoires du Pays Basque nord, de la Communauté autonome d'Euskadi ou de la Navarre, dans un centre agréé par les Gouvernements de la CAE ou de Navarre (liste des centres agréés consultable sur le site de la CAPB).

## Article 4. Montant de la bourse

Le montant de la bourse est fixé à 5 € par heure de formation suivie dans la Communauté autonome d'Euskadi ou dans la Communauté forale de Navarre dans un centre agréé par le Gouvernement de la CAE ou de la Navarre, et à 9 € par heure de formation suivie dans un centre de formation se trouvant sur le territoire du Pays Basque Nord.

Le montant global de la bourse prévisionnelle sera calculé au regard du niveau initial du candidat et du nombre d'heures nécessaires pour l'atteinte du niveau visé : B1, B2 ou C1 du CECRL.

Le montant versé ne pourra être supérieur au coût global de la formation diminué du montant pris en charge par les financements mobilisés par ailleurs.

## Article 5. Modalités de versement

Un premier versement de 30 % sera effectué au démarrage de la formation. Les 70 % restant seront versés à la fin de la formation, sur présentation des attestations de présence fournies par le centre de formation. Ces attestations devront préciser le nombre d'heures suivies. Le montant final de la bourse sera établi au *prorata* des heures de formation réellement suivies.

Un candidat qui aurait débuté une formation avant une décision positive de la commission d'attribution ne pourra prétendre au versement d'une bourse pour les heures de formation déjà réalisées.

## Article 6. Engagements des bénéficiaires

Les engagements seront formalisés dans une convention attributive qui devra être signée par le candidat pour que la bourse puisse être versée.

En contrepartie de l'attribution de la bourse, le bénéficiaire s'engage à :
- suivre intégralement la formation et fournir à la CAPB une attestation d'assiduité remise par l'organisme de formation,

Erkidegoan edo Nafarroan, Eusko Jaurlaritzak edo Nafarroako gobernuak baimendutako zentro batean (baimendutako zentroen zerrenda ikusgai da Euskal Elkargoaren webgunean).

## 4. artikulua. Bekaren zenbatekoa

Bekaren zenbatekoa 5 €/orena da ikas-prozesua Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroako Foru Erkidegoan egiten bada, bertako gobernuek baimendutako zentro batean eta 9 €/orena Ipar Euskal Herriko formakuntza zentro batean egiten bada.

Aurreikusitako bekaren zenbateko orokorra Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B1, B2 edo C1 maila lortzeko behar den ordu kopuruaren arabera kalkulatua izanen da.



Eskuratuko den zenbatekoak ezingo du formakuntzaren kostu orokorra gainditu (kostu orokorra kalkulatzeko bestalde mobilizaturiko finantzamenduak kendu behar dira).

## 5. artikulua. Ordainketa modalitateak

Formakuntza hastean lehen ordainketa bat eginen da, % 30ekoa. Gelditzen den % 70a formakuntza bukatzean emanen da, formakuntza zentroaren presentzia frogagiriak errezibitu ondotik. Frogagiri horietan, formakuntzaren oren kopurua agertu behar da. Bekaren behin betiko zenbatekoa egiazki egin diren orenen arabera kalkulatuko da.

Esleipen batzordearen onarpena aitzin formakuntza hasia duen hautagai batek ezingo du bekatik dirua errezibitu jadanik eginak dituen orenak ordaintzeko.

## 6. artikulua. Onuradunen engaiamenduak

Hautagaiak bere engaiamenduak agertzen diren esleipen-hitzarmen bat izenpetu beharko du beka eskuratu ahal izateko.

Beka eskuratzearen truke, onuraduna engaiatzen da:
- formakuntza osorik egitera eta Euskal Elkargoari formakuntza zentroaren presentzia frogagiri bat aurkeztera,
- formakuntzaren ondotik, EEPk UPPA eta Bordeleko Unibertsitatearekin partaidetzan antolatzen duen B1, B2 edo EGA azterketara aurkeztera. Huts eginez gero, hurrengo azterketan aurkeztu beharko da,

- à l'issue de la formation, se présenter à la première session de l'examen de certification B1, B2 ou EGA mis en oeuvre par l'OPLB en partenariat avec l'UPPA et l'Université Bordeaux Montaigne. En cas d'échec, se présenter à la session suivante,
- rembourser à la CAPB le montant des bourses versées en cas de non-respect d'un ou plusieurs des engagements ci-dessus, en dehors des cas de force majeure.

## Article 7. Modalités de candidature

Les candidats souhaitant postuler au dispositif « *Euskaldundu* » devront remplir un dossier de candidature accessible en ligne sur le site de la CAPB.

Pour tous les candidats, le dossier de candidature devra contenir :

- la fiche de renseignements complétée,
- un curriculum vitae,
- une lettre de motivation présentant le projet professionnel, associatif ou personnel en langue basque et démontrant la pertinence de la formation au regard de celui-ci,
- une attestation du niveau de langue basque initial fournie par l'organisme de formation choisi par le candidat (les coûts relatifs au positionnement linguistique seront remboursés par la CAPB, en complément de la bourse, sur demande des candidats et présentation d'un justificatif),
- un plan de formation précis (calendrier individualisé, coûts, niveau ciblé) établi par l'organisme de formation choisi,
- un RIB,
- un justificatif de résidence,
- si nécessaire, tout justificatif permettant l'examen et la prise en compte d'une situation particulière,
- les pièces justificatives (courrier, notification), prouvant que le candidat a sollicité des aides financières de droit commun (CPF, congés de formation professionnelle, congés de transition, etc.).

Les dossiers de candidatures sont mis à disposition sur le site internet de la CAPB. Chaque année, deux sessions d'attribution de bourses seront organisées :

- pour une entrée en formation au second semestre de l'année N, les dossiers sont à retourner au plus tard le 15 avril N.
- pour une entrée en formation pour le premier semestre de l'année N+1, les dossier sont à retourner au plus tard le 15 octobre de l'année N.

- engaiamendu hauetako bat edo gehiago errespetatzen ez badira (salbuespenezko egoera batean izan ezik) Euskal Elkargoari dirua itzultzera.

## 7. artikulua. Hautagaitza modalitateak

«*Euskaldundu*» dispositiboan hautagaitza aurkeztu nahi duen orok Euskal Elkargoaren webgunean atzeman daitekeen hautagaitza dosierra bete beharko du.

Hautagai guzien kasuan, hautagaitza dosierrean aurkeztu beharko dira:

- informazio fitxa osatua,
- curriculum vitae bat,
- motibazio gutun bat, proiektu profesional, pertsonal edo elkarte proiektu batean duen euskararen beharra eta horri erantzuteko formakuntza egokia aurkezten dituena,
- hautagaiak hautaturiko formakuntza zentroak egin hautagaiaren euskara mailaren frogagiri bat (Euskal Elkargoak mailakatzearen kostua ere bere gain hartzen ahalko du, bekaz gain, hautagaiak eskaera egiten badu eta frogagiri bat aurkezten badu),
- formakuntza zentroak egin plan zehatz bat (egutegi indibidualizatua, kostuak, helburutzat hartzen den maila),
- bankuko nortasun agiria,
- bizilekuaren frogagiria,
- beharrez, egoera berezi bat aztertzen eta kontuan hartzen laguntzen duen edozein frogagiri,
- hautagaiak zuzenbide komuneko laguntzak (CPF, formakuntza profesionalerako oporrak, trantsizio oporrak, etab.), eskatu dituela erakusten duten frogagiriak (gutunak, erantzunak).

Hautagaitza egiteko dosierrak eskuragarri dira Euskal Elkargoaren webgunean. Urtero bi esleipen saio antolatuko dira:

- formakuntza X urteko bigarren urte erdian hasteko, dosierrak berantenik X urteko apirilaren 15a aitzin aurkeztu behar dira.
- formakuntza X+1 urteko lehen urte erdian hasteko, dosierrak X urteko urriaren 15a aitzin aurkeztu behar dira.

Osoak ez diren dosierrak ez dira aztertuko.

## 8. artikulua. Hautagaien hautatzeko prozedura

Les dossiers non complets ne seront pas examinés.

## Article 8. Procédure de sélection des candidats

Les candidats seront sélectionnés sur dossier par une commission *ad hoc* de la CAPB.

Les dossiers de candidature doivent permettre à la commission d'évaluer les candidature au regard des critères suivants :

- niveau initial en langue basque,
- projet professionnel, associatif ou personnel du candidat.

Après instruction des dossiers, les candidats retenus seront convoqués à un entretien et auditionnés afin d'évaluer leurs motivations.

Après sélection des candidats, la CAPB informera individuellement de l'attribution de la bourse « *Euskaldundu* » et du montant alloué.

## Article 9. Règlement des litiges

En cas de litige dans l'application du présent règlement, seul le Tribunal administratif de Pau sera compétent.

Hautagaiak hautatzeko Euskal Elkargoko *ad hoc* batzorde bat sortuko da.

Dosierraren bidez, batzordeak hautagaitza ebaluatzeko gai izan behar du, irizpide hauen arabera:

- hastapeneko euskara maila,
- hautagaiaren proiektu profesional, pertsonal edo elkarte proiektua.

Dosierrak aztertu ondotik, hautatu diren hautagaiak elkarrizketa batera deituko dira bakoitzaren motibazioen neurtzeko.

Hautagaiak hautatu ondotik, Euskal Elkargoak banaka jakinaraziko die «*Euskaldundu*» beka onartu zaiela eta eskuratuko duten zenbatekoa.

## 9. artikulua. Eztabaiden antolaketa

Araudi honen aplikatzeari buruzko eztabaidak konpontzeko eskumena Paueko Administrazio Auzitegiak soilik du.